

Neguko Bidezaintza Planaren operatiboa azaroaren 15etik apirilaren 15era egongo da aktibatuta

Bide-sare nagusiaren eta bigarren mailako sarearen segurtasuna eta mantentze-lanak berrmatuko ditu.



Bide Azpiegituretako Departamentuak 2023-2024 Neguko Bidezaintza Plana aurkeztu du, eguraldiak hala behartzen duenean, aktibatzeko prest egongo dena azaroaren 15etik apirilaren 15era bitartean, Maria Ubarretxena, Bide Azpiegituretako diputatuak azaldu duenez. Errepide-sarea izotz- eta elur-baldintzetan behar den segurtasun-mailan mantentzeko erantzun-plan honek, hala sare nagusian nola bigarren mailako errepideetan egingo du artapena, ohiko baliabideekin. Honekin batera, halaber, gidariak gomendioak jarraitu eta ahal den neurrian arriskuak saihestearen garrantzia azpimarratu nahi izan du Ubarretxenak: “Oso eguraldi txarra egiten duenean, ahal dela autoa ez hartzea eta, hori ezinezkoa bada, ibilgailua egoera onean eta baliabide egokiek dagoela ziurtatzea, eta, errepidean, nola ez, segurtasun-jarraibide guztiak uneoro betetzea”.

Euskalmet agentziak izotz abisuak ematen dituenean ekingo zaio operatiboari, ala elurra 1.000 metrotik beherako altueran iragartzen den kasuetan. Hala, Aldundiak 87 kamioi izango ditu prest, eta urtero bezala, Eusko Jaurlaritzak N-I eta A-15 errepideetan dituen edukiera handiko garabiak ere egongo dira eskura, ibilgailu astunen bat errepidean traban balego. Era berean, 11.400 tona gatzez hornitu dira 39 biltegi eta estrategikoki kokatuta dauden hornikuntza eta logistika koordinatzeko bi zentro izango ditu operatiboak, bata Bergaran eta bestea Zestoa-Zumaian, Gipuzkoako edukiera handiko bideei eta garraio-korridore nagusien sarreratan.

Bestalde, Maria Ubarretxenak gogorarazi du erakundeen arteko lankidetzaren funtsezkoa izango dela Neguko Bidezaintza Planaren funtzionamendurako, eta, ondorioz, Bidegirekin, Gipuzkoako suhiltzaileekin, Eusko Jaurlaritzarekin, Ertzaintzarekin, Nafarroako Gobernuarekin eta Arabako eta Bizkaiko aldundiekin lankidetzaren estua izango dela.

Horrekin batera, diputatuak abisu berezia luzatu nahi izan die ibilgailu astunak gidatzen dituzten gidariei, eta gogorarazi die elurra egiten badu guztiz debekatuta dagoela kamioiekin aurreratzea eta ezkerreko erreitiko zirkulatzea. Ertzaintza arduratuko



da debeku hori kontrolatzeaz. “Eskaera hori gainerako ibilgailuei ere egiten diet; errepidea egoera txarrean dagoenean, komenigarria da ezkerreko erreia libre uztea, elurra kentzeko makinek eta larrialdietako ibilgailuek beren lana egin ahal izan dezaten”, esan du, “guztion esku” baitago arriskua sahiestea eta kalteak murriztea.

A-15 korridorearen itxiera

Neguko kanpaina honetan aurten ere arreta berezia jarriko zaio A-15 errepideari, Oindolar eta Gorosmendiko tuneletan egiten ari diren egokitze-lanak direla eta. Aurreko kanpainetan bezala, elurra kentzeko makinekin obra direla eta jarritako desbideratzeetan ibiltzerik ez dagoenez, aurreko urteetako neurriak errepikatuko dira, eta korridore hori erabat itxiko da, ibilgailu guztientzat eta bi galtzadetan, Berastegiko lotunearen eta Andoaingoaren artean, betiere errepidearen baldintzek hala eskatzen badute. Itxierari eta irekierari buruzko informazio zehatza unean-unean emango da Telegram aplikazioko ELURRA A-15 NIEVE kanal publikoaren bidez.

Autobidea itxiz gero, Nafarroako taldeekin koordinatuko da trafikoa beste ibilbide batzuetatik desbideratzea, eta debekatu egingo da GI-2130 errepidetik kamioiak pasatzea. Seinale bertikala jarriko dira eta Trafiko departamenduarekin koordinatuko da etete hori. Andoain-Iruña norabideko galtzada Andoainen itxiko da, eta ezin izango da ibilgailurik sartu. Iruña-Andoaingo noranzkoan, aldiz, galtzada errei batera murriztuko da Berastegiko lotunetik gertu, eta ibilgailuak lotunerantz desbideratuko dira. Lotunean, Ertzaintzak sailkapena egingo du ibilgailu astunak Nafarroara birbideratuz, A-15 errepidetik.

Zarautz, 2023/11/09



El operativo del Plan de Vialidad Invernal estará activado desde el 15 de noviembre al 15 de abril

Garantizará la seguridad y el mantenimiento en condiciones adecuadas de la red viaria principal y secundaria.



El departamento de Infraestructuras Viarias ha presentado el Plan de Vialidad Invernal 2023-2024, con el dispositivo habitual listo para activarse cuando las condiciones meteorológicas exijan su despliegue. De esta manera, como ha explicado la diputada Maria Ubarretxena, “a partir del 15 de noviembre al 15 de abril, se mantendrá en vigor el plan de respuesta para mantener la red de carreteras en los niveles de seguridad necesarios en condiciones de hielo y nieve, tanto la red principal como en la secundaria”. Sin embargo, también ha querido hacer hincapie en la importancia de seguir las recomendaciones y de evitar riesgos en la medida de lo posible, por parte de las y los conductores: “En condiciones meteorológicas muy adversas, conviene evitar ponerse al volante y si ello no es posible, asegurarse de tener el vehículo en buen estado y con los recursos adecuados y, en carretera, como no puede ser de otra manera, cumplir todas las indicaciones de seguridad”.

El operativo arrancará cuando la Agencia Vasca de Meteorología emita los correspondientes avisos por hielo a cualquier cota, o nieve a una cota inferior a 1.000 metros de altura. Para estos casos, la Diputación contará con una dotación de 87 camiones a los que como todos los años se sumarán las grúas de gran capacidad que dispone el Gobierno Vasco en la N-I y la A-15, que se emplearán cuando algún vehículo pesado obstaculizara la carretera o tuviera problemas. Asimismo, se dispondrá de 11.400 toneladas de sal repartidas en 39 depósitos y con dos centros de coordinación de suministro y logística estratégicamente situados, uno en Bergara y otro en Zestoa-Zumaia, para atender y abastecer las vías de alta capacidad y principales corredores de transporte de Gipuzkoa.

Por otro lado, Maria Ubarretxena ha recordado que la colaboración interinstitucional será el elemento clave para el funcionamiento del Plan de Vialidad Invernal y, por tanto, la colaboración con Bidegi, con los parques de bomberos de Gipuzkoa, el Gobierno Vasco, la Ertzaintza, el Gobierno de Navarra y las diputaciones de Álava y Bizkaia será constante. La diputada también ha dado un especial aviso a quienes conducen vehículos pesados, recordando que en caso de nieve está totalmente prohibido adelantar y circular por el carril izquierdo. “La Ertzaintza será la encargada de controlar esta prohibición. Esta petición también la hago extensiva al resto de vehículos; cuando la carretera está en mal estado es conveniente dejar despejado el carril izquierdo para que las máquinas quitanieves y los vehículos de emergencia puedan



hacer su trabajo”, ha reiterado, añadiendo que “está en manos de todos y de todas poder evitar riegos o complicar las afecciones”.

Cierre de la A-15

El punto que volverá a requerir una especial atención será la carretera A-15, debido a las obras de acondicionamiento que se están llevando a cabo actualmente en los túneles de Oindolar y Gorosmendi. Como en campañas anteriores, ante la imposibilidad de transitar por los desvíos de tráfico con los camiones quitanieves, se repetirán las medidas de los anteriores años, y dicho corredor se cerrará por completo, para todos los vehículos y en ambas calzadas, entre el enlace de Berastegi y el de Andoain, siempre que las condiciones de la carretera así lo exijan. La información puntual sobre cierres y reaperturas se proporcionará inmediatamente a través del canal público de Telegram ELURRA A-15 NIEVE.

En caso de cierre de la autovía, se coordinará con los equipos de Nafarroa el desvío del tráfico por otros itinerarios y se prohibirá la circulación de camiones de paso por la GI-2130 colocando señales verticales y se coordinará con Tráfico para que este corte sea efectivo. La calzada sentido Andoain-Iruña se cortará en Andoain, no permitiéndose el acceso de ningún vehículo. La calzada en sentido Iruña-Andoain se estrechará a un carril en las proximidades del enlace de Berastegi, acabando por un desvío de los vehículos hacia el enlace. En el enlace, la Ertzaintza hará una discriminación de vehículos redirigiendo hacia Navarra, por la A-15, a los vehículos pesados.

Zarautz, 2023/11/09